



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 11

18. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 3. eta 4. artikulua aldatzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan. Ángel Ansa Echeagaray jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko proiektua bultza dezan. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, al bait lasterren jarri ere, musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro bat, eta sektorearen jardura berma dezan. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, hurrengo hilabeteotako kultur ekitaldien programazioari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (11. or.).

—Galdera, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko bulegoburu eta Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren ordainsariei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko estrategiaren gaineko ekintza planari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Erregistro Orokorraren bulegoak berritzeko obretan irisgarritasunera bideratutako kostuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatuaren bilereari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoaren bilereari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Tokiko Polizia daukaten toki-entitateek segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharreko informazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroan sorgin-ehizaren xede izan ziren emakume nafarren memoria eta errekonozimenduari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Kideak programari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzea. Hautagaia aldarrikatzea (20. or.).
- Soldata-arrakalak areagoturiko gizarte-desparekotasun gero eta handiagoaren analisiari, egoerari eta hari aurre egiteko neurriei buruzko Osoko Bilkura monografiko bereziaren eztabaida antolatzeko arauak (21. or.).
- Datalia Protección de Datos SL enpresa izendatzea Nafarroako Kontuen Ganberako datu-babeserako ordezkariaren eginkizunak betetzeko (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 3. eta 4. artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkerra talde parlamentario mistoak Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 3. eta 4. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta irakurketa bakoitzeko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute (10-22/PRO-00003).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 3. eta 4. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa bakoitzeko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 3. eta 4. artikulua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeak xedetzat du familia gurasobakarraren edo gurasobakartasun-egoerako familiaren izaera aitortzeko beharrezkoak diren betekizunak zehaztea. Kasuko dokumentazioa familia osatzen duten pertsonetako bakoitzarentzat jaulki da, eta Nafarroako Foru Komunitate osoan izanen du balioa. Ezartzen diren laguntzak erregelamendu bidez zehaztuko den per capita errentaren arabera izanen dira.

Baina legeak ez du ezein kasutan aipu berriazkorik egiten jatorriz atzerritarak diren pertsonen osaturiko familiei buruz:

1. Kasuak, zeinetan guraso batek kondena betetzen baitu herrialdetik kanporatzeko aginduren bitartez, eta Nafarroan beste gurasoa eta haien ondorengoak geratzen baitira.

2. Kasuak, zeinetan jatorrizko herrialdean gurasoetako bat desagertua baitago gatazka armatu baten ondorioz edo migrazio-prozesuan zehar, eta Nafarroan beste gurasoa eta haien ondorengoak bizi baitira.

Lehenbiziko kasuan, egoera zaila da epe laburrean leheneratzen; izan ere, egoera administratibo irregular batengatik herrialdetik kanporatua izan den pertsona batek zailtasun asko izan ohi ditu bizileku-baimen bat lortzeko, itzuli ahal izateari begira.

Bigarren kasukoak izan ohi dira nazioarteko babesa eskatzen duten familiak, migrazioaren ibil-

bidean zehar edo jatorrizko herrialdeko gatazka armatu baten ondorioz bereizirik suertatu direnak beren gogoz kontra, eta kontaktua galdu dutenak.

Bi kasu horietako gehienetan, ama izan ohi da Nafarroan seme-alabak ardurapean izanik gelditu ohi dena.

Muntazko arau-hutsunea deritzogu, jatorri atzeritarreko familien eskubideak urratzen dituen eta bereziki ukitzen dituen emakumeak eta haurrak, ezen haurrei murriztu egiten zaizkie aukerak, eta berdintasunik gabe tratatuak dira.

Artikulu bakarra.

Bat. 3.2. artikulua aldatzen da. Familia guraso-bakarraren eta gurasobakartasun-egoerako familiaren kontzeptuak.

«2. “Gurasobakartasun-egoerako familia”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren batean egoitea aitortzen zaiona:

a) Semearen edo alabaren edo seme-alaben zaintza eta jagoletza eskusiboki gurasoetako batek dueneko, baldin eta familia-unitatearen diru-sarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

b) Familia bat non bere kargura semeak edo alabak edo seme-alabak dituen gurasoak beste gurasoengandik genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakolari jarraituz.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat urtebetez edo gehiagoz espetxeratuta daukana, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

d) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bati Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortu dionekoa, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea. Kasu horretan, gurasobakartasun-egoerako familia-unitatea osatuko dute mendekotasun handiko edo baliaezintasun handiko egoeran ez dagoen pertsonak eta haren semeak edo alabak edo seme-alabek.

e) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat ebazpen irmoz kanporatze-agindua jaso izanaren ondorioz nazio-lurraldetik kanpo dagoeneko, harik eta itzultzeko moduko bizileku-baimena lor-

tzeko moduan egon arte, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

f) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat zaurgarritasun-egoeran dagoeneko, elkarbizitza-kide duen beste pertsona non dagoen ez jakiteagatik, horrek bere jatorrizko herrialdea gatazka armatu baten ondorioz utzi ondoren edo migrazio-ibilbidean zehar harekiko kontaktua galdu ondoren, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea».

Bi. 16. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Dokumentazio orokorra, 3. eta 4. artikuluetan ezarritako familia-egoeraren arabera aurkeztu beharrekoa.

«2. Aurkeztu beharreko dokumentazio berezia, aurreko puntuan adierazitako dokumentazio orokorrak gainerakoa.

3.1 artikuluan jasotako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorrak gainera:

a) Semea edo alaba edo seme-alabak Erregistro Zibilean guraso bakar batek inskribatuta egotearena. Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa.

b) Alarguna den edo egoera baliokidean dagoen pertsona batek semearekin edo alabarekin edo seme-alabekin osatzen duena: beste pertsona batekin bikote egonkorra (edo izatezko bikotea) ez osatzeari eta ezkondu ez egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Hil egin den aurreko ahaidearen heriotza-ziurtagiriaren kopia, familia-liburuan jasota ez badago.

c) Pertsona batek adingabe bat edo gehiago harreran hartzen dueneko kasua, dagokion ebazpen administratibo edo judizialaren bitartez, urtebeterako edo gehiagorako: beste pertsona batekin bikote egonkorra ez osatzeari eta ezkondu ez egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Harrerari buruzko ebazpen administratibo edo judiziala, haur-gaietan eskudun den zuzendaritza nagusiak emana. Dokumentazio hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Foru Komunitateko harrerako familien kasuan.

3.2 artikuluan jasotako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorrak gainera:

a) Aitak edo amak seme-alaben zaintza edo jagoletza eskusiboa edo erabatekoa duenean: erantzukizunpeko adierazpena, beste pertsona batekin bikote egonkorrik ez osatzearena eta ezkontuta ez egotearena.

b) Familia bat non seme-alabak bere kargura dituen amak genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz. Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Foru Legearen 4. artikuluan jasotako arauen araberrako frogagiria. Horri gehituko zaizkio, salbuespen-izaerarik gabe, honako hauen txosten teknikoak: 1. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak, autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoarenak. 2. Osasun zerbitzuak, autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoarenak. 3. Osasun mentaleko zentroak. 4. Harrera-baliabideak, autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoarenak. 5. Emakumeentzako laguntzarako udal zerbitzuak, badauzkatenak arreta integralerako profesionalak. 6. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako batek mendekotasun handiko edo baliaezintasun handiko egoera bat aitortuta dueneko: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak jaulkitako baliaezintasun handiaren ziurtagiria edo mendekotasun handiko gradua aitortzen duen ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala sustatzearen eta mendekotasunerako laguntzaren arloan eskudun den departamentuak emana.

d) Gurasoen egoera zaintza partekatukoa denean: egoera hori frogatzen duen epai judiziala.

e) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat ebazpen irmoz kanporatze-agindua jaso izanaren ondorioz nazio-lurraldetik kanpo dagoeneko, harik eta itzultzeko moduko bizileku-baimena lortzeko moduan dagoen arte: kanporatze-ebazpen administratibo edo judiziala.

f) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat zaurgarritasun-egoeran dagoeneko, elkarbizitza-kide duen beste pertsona non dagoen ez jakiteagatik, horrek bere jatorrizko herrialdea gatazka armatu baten ondorioz utzi ondoren edo migrazio-ibilbidean zehar harekiko kontaktua galdu ondoren: nazioko edo nazioarteko erakunde eskudunen frogagiria eta/edo autonomia erkidego nahiz tokiko

administrazio publikoaren oinarrizko laguntzako gizarte-zerbitzuak jaulkitako txosten teknikoak.

A, c, d, e eta f kasuetan beharrezkoa izan da, gainera, azken PFEZ aitortpena aurkeztea, salbu eta horretarako betebeharrak ez dagoenean, ezen orduan zilegi izan baita erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea, edo autonomia erkidegoko nahiz tokiko administrazio publikoko oinarrizko laguntzako gizarte-zerbitzuak jaulkitako txosten bat, non adierazten den ezen familia-unitatearen diru-sarrerak ez dutela 1,7 bider baino gehiago gaintzen ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea».

Hiru. 24. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Tituluen indarraldia.

«2. Familia gurasobakarra izatearen tituluak indarraldi berezia izanen du kasuotan:

a) Tituluak ikasketengatik berritzen badira, tituluak gehienez 26 urtera arteko indarraldia izanen du.

b) Iraupen jakin bat duen harreraren kasuan, tituluak iraupen bereko indarraldia izanen du. Harreran hartutako pertsonak 18 urte betetzen dituenean, titulua berritu ahalko da baldin eta familia-unitate berarekin bizitzen jarraitzen badu. Kasu horretan, indarraldia bi urtekoa izanen da.

c) Genero-indarkeriarengatik emandako titulua kasuan, tituluak bost urteko indarraldia izanen du.

d) Askatasun-gabetzearen, nazio-lurraldetik kanporatzearen edo elkarbizitzako beste pertsona non dagoen ez jakitearen ondoriozko zaurgarritasun-egoeraren kasuan, tituluak urtebeteko indarraldia izanen du.

e) Titulua edo kategoria desgaitasun-graduaren, mendekotasun-egoeraren, lanerako ezintasunaren edo baliaezintasun handiaren baitan bada, aitorpen bakoitzak ezartzen duen indarraldia izanen du.

f) Kategoria familia-unitatearen diru-sarreraren baitan dagoenean, urtebeteko indarraldia izanen du».

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioaren eta foru parlamentarien elkartearen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publi-

koko eta Barneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Auzitegi Nazionalak, Barne Ministerioak eskatuta, Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko izapidea abiarazi du.

Alderdi politiko horrek Nafarroako Ordezkaritza Kanabikoaren lekua hartu zuen, 2023an ahalik eta hautesbarruti gehienetan aurkezteko, haiek ziotenez.

Nafarroako Ordezkaritza Kanabikoak urteetan zehar sustatu du kannabisaren kontsumoa arautzea, autolaborantza eta kontsumo indibiduala nahiz kolektiboa baimentzea, administrazioaren tutoretzapeko merkatu bat arautzea eta klub eta elkarte kanabikoen jarduna legeztatzea, kontsumo arduratsua kontrolatzeko eta substantzia aizunduen trafikoa ekiditeko xedez. Hori dena lege-hutsune batean da une honetan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak bere babes guztia ematen die pluraltasun politikoari eta parte-hartze politikorako eskubide oinarritzakoarekiko konpromisoari, eta Espainiako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena.

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Foru parlamentariak: Blanca Regúlez, Adolfo Araiz, Ainhoa Aznárez eta Marisa de Simón

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan.

Espainiako Gazteriaren Kontseiluko Gazteriaren Emantzipazioaren Behatokiak egindako azken txostenean –2021eko lehenbiziko sei hilekoari dagokio– adierazten denez, 30 urtera bitarteko nafar gazteen % 13,8 bakarrik daude emantzipaturik: Nafarroak inoiz izan duen daturik baxuena, nazioko batez bestekoaren azpitikoa, han % 14,3koa baita. Nafarroa 14.a da 17 auto-

nia erkidegoen artean; 2,9 puntu soilik azkenaren gainetik (Gaztela-Mantxa, % 10,9). Emantzipazioa da, langabeziarekin batera, gazteen arazorik handienetako bat.

EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programa prestazio bermatu bat da, ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko; 23 urtetik 31 urtera bitarteko gazteei zuzendua da eta 3 urtez luza daiteke gehienez ere (ez dute zertan jarraituak izan). Laguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren errentaren % 50ekoa izanen da, eta gehienez ere 250 eurokoa hilean, etxebizitzaren errenta hilean 675 euro baino gehiagokoa ez izatearen baldintzarekin.

Gure ustez, programa nabarmen hobetzen ahal da, bi arlotan hobetu ere: batetik, adin-tartea (23tik 31ra urte bitarte) zabaltzen ahal da; izan ere, Gazteriaren Foru Legeak ezartzen du pertsona bat 30 urte bete arte dela gaztea, baina adin horretan da gazte asko emantzipatzen direnean, eta hortik programa 35 urtera bitarte luzatzearen premia); bestetik, programak ez du errazten pisu bat hainbat pertsonaren artean hartzea; hortaz, etxebizitzaren gehieneko hileko errenta handitzea proposatzen da, hileko laguntza indibidualaren gehieneko zenbatekoa aldatu behar izan gabe (250 €).

Erabaki proposamena:

1. Programaren balizko onuradunen adin-tartea 35era urtera bitartekoa izateraino handitzea legegintzaldia bukatu aitzin.

2. Etxebizitzaren hileko gehieneko errentaren betekizuna hileko 675 €-tik gora igotzea, laguntzaren gehieneko zenbatekoa aldatu gabe (250 € hilean), etxebizitza zenbait pertsonaren artean partekatzeko aukera aldezteko.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko proiektua bultzatzea.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko proiektua bultzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko proiektua bultzatzea

la hiru urte igaro dira 2019ko martxoaren 5ean Nafarroako Atletismo Federazioaren ordezkariak Kultura eta Kiroleko Batzordean azaldu zutenetik beharrezkoa dela Nafarroan pista estali bat paratzea atletismoa egiteko.

Batzordeak iragan legegintzaldian egindako bilkura hartan, talde parlamentario guztiak ulerbera agertu ziren Nafarroan atletismoak bizi duen egoerarekin eta dauzkan beharrezkin, eta prest agertu ziren albat lasterren ekiteko pista estali bat eraikitzeko auziari; izan ere, Nafarroa da –Kantabriar Uharteekin batera– gisa horretako azpiegiturarik ez daukan Espainiako erkidego bakarra.

Nafarroan euria edo elurra egiten du urtearen heren batean gutxienez ere, eta 2.500 pertsonak egiten dute atletismoa, federatuak eta profil amateuragoak aintzat hartzen baditugu. Klima lagun ez izan arren, atletismoak gero eta interes sozial

handiagoa pizten du gure erkidegoan, atletismoa egiten dutenen kopuruak erakusten duen moduan, eta horretaz gain berebiziko inpaktu mediatikoa sortzen ari da bertako kirolariak lortzen ari diren arrakasta ikusita, aldiro heltzen ari baitira domina, txapelketa eta errekor berriei buruzko albisteak.

2019an, Parlamentu honek Navarra Sumaren mozio bat onetsi zuen aho batez, pista estali bat eraiki zedin eta hori 2020ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso zedin. Harrezkero, Nafarroako Atletismo Federazioa eta kirolariak eurak Nafarroako Gobernuaren konpromisoaren zain daude, oraindik ere ez baita halakorik iritsi.

Hainbat batzorde, agerraldi, epe, Gobernuaren erantzun eta promesa izan dira hilabete hauetan guztietan bete ez direnak. Une honetan daukaguna da pista estali baten bideragarritasunari eta premiari buruzko azterlan bat, Gobernuak orain dela lau hilabete iragarri zuena eta zeinaren berri ez daukagun.

Bitartean, egoera zinez kaskarretan egiten ari dira Nafarroan txapelketak nahiz entrenamenduak, erkidegoko pistetako tartana estaltzen duten euriaren, elurraren eta izotzaren erruz. Nafarrek egoera negargarri horren adibide bat bizi ahal izan zuten urtarrilaren 15eko eta 16ko aste-buruan, Nafarroako Kirol Jokoak egin zirenean, Larrabide estadioko tartanaren irudiak Nafarroako nahiz Espainia osoko kirol-hedabide nagusietan jaso zituztelako.

Nafarroako Gobernuak –eta, horrenbestez, Kultura eta Kirol Departamentuak– jakin badaki premia hori paratzea, baina oraindik ere ez da inongo aurrerabiderik egin Parlamentuan orain 25 hilabete hartutako konpromisoari dagokionez.

Hori dela-eta, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du albat lasterren abiaraz ditzan Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko izapidetza, hartara beteko baitira Nafarroan beharrezkoa den premia bat nahiz Nafarroako Parlamentuak 2019ko abenduan adierazitako borondatea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, albait lasterren jarri ere, musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro bat, eta sektorearen jarduera berma dezan.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan, albait azkarren jarri ere, musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro bat, eta sektorearen jarduera berma dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan, albait lasterren jarri ere, musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro bat, eta sektorearen jarduera berma dezan.

COVID-19aren krisia elementu desestabilizatzailea izan da gizarte-, ekonomia nahiz osasun-mailan 2020ko martxotik hona. Gogor kolpatu ditu produkzio-sektore guztiak, zeinek aurrekaririk gabeko pandemia global honen ondorioak pairatu dituzten, eta, jakina, kulturaren sektorea ez da egoera horretatik libratu. Halatan, egoera epidemiologikoak hobera egin ahala jarduera zenbait arlotan leheneratuz joan den arren, kulturak normaltasunerako itzulera mantsoa pairatzen jarraitu du, eta urrats horiek sarri ez dira aurrerantz egin, baizik eta atzerantz.

Ikusi besterik ez dago erakunde publikoei zenbat kostatu zaien pandemia hasi zenetik sektorea

ito duten murrizketak kentzen joatea. Horrela, bertan behera geratu dira hainbat ekitaldi, edukierak asko murriztu dira, debekatu egin da ekitaldietan zutik egotea, nahitaezkoa izan da maskara jartzeara, ezin izan da edaririk edo jatekorik kontsumitu, itxi egin dira barrak, debekatu egin dira leku itxietako ekitaldiak...

Kulturaren sektoreko jarduna –eta bereziki, zuzeneko musika– ia guztiz murriztu da, halako moduan non orain dela ia bi urtetik hona egunero kontua izan da ekitaldiak bertan behera uztea edo geroratzea. Programatzaileek, teknikariek, artistek, ekoizleek, muntatzaileek... kolokan ikusi dituzte beren lanak, eta fakturazioa hainbeste jaitsi da non sektorearen egoera jasanezina bihurtu baita oro har.

Nafarroan, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak Navarra Sumaren mozio bat onetsi zuen 2020ko urriaren 7an; hartan adierazten zenez, beharrezkoa zen “sektorerako zuzeneko laguntzak bultzatzea, bai eta tresna fiskalak ere, kontuan hartuko dutenak kultur jardueraren aldizkakotasuna langileekiko eta enpresekiko”. Mozioa aho batez onetsi zuten bertan zeuden talde parlamentario guztiek, eta haien mintzaldietan ere agerian geratu zen ados zeudela.

Nafarroako Gobernuak zuzeneko laguntza horiei buruz deus ere esaten ez zuela ikusita, zuzeneko musikaren sektoreko eragileek –Zuzeneko Musikaren Nafarroako Elkartearen aterkipean– laguntza horiek abian jartzeko eskatu zioten 2021eko ekainaren 24an Kultura eta Kirol Departamentuari. Haien esanetan, laguntza ekonomiko hori ezinbestekoa da sektorearen egoera arinduko bada, orain arte ezin izan baitute normaltasunez lan egin, edo, besterik gabe, lan egin.

Halaber, ANAIMEk uztailaren 19an berriz ere adierazi zion departamentuari laguntza horiek beharrezkoak direla, eta beste autonomia erkidego batzuetan –Euskadin, adibidez– egiten ari direna baliatu zuen adibide modura. Azkenik, irailaren 29an, Parlamentuan ANAIMEkin egindako lan-bilkuran, zuzeneko ekitaldien sustatzaileek Parlamentuari beste behin eskatu zizkioten zuzeneko laguntzak, eta talde parlamentario guztiak, egoeraren larritasunaz jabetuta, beste behin azaldu ziren ados beren mintzaldietan.

Gaur, 2022ko otsaila, sektoreak laguntza horiek jaso gabe jarraitzen du, eta bertan behera gelditu diren ekitaldien berri izaten jarraitzen dugu, zuzeneko musika zigortzen jarraitzen duten murrizketen ondorioz, normaltasunez lan egitea, edo, besterik gabe, lan egitea eragozten dutenak.

Hori dela-eta, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Albait lasterren abiaraz dezan musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro

bat, sektoreko profesional autonomoen, enpresen nahiz entitateen jarduera mantendu ahal izan dadin; izan ere, pandemiak eragindako krisitik heldu den diru-sarreraren jaitsiera dela-eta kolokan ikusi dute beren jarduera ekonomiko profesionalaren iraupena.

2. Ekitaldien plangintza bat taxutu dezan sektoreko eragileekin batera, egoera epidemiologikoak izan ditzakeen eszenatoki ezberdinetara egokitua, halako moduan non ekitaldi horiek beste gune, edukiera edo baldintza batzuetan egin ahal izanen baitira eta ekonomikoki bideragarriak izanen baitira sustatzaileentzat ere.

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

F saila:
GALDERAK

Galdera, hurrengo hilabeteotako kultur ekitaldien programazioari buruzkoa.*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea hurrengo hilabeteotako kultur ekitaldien programazioari buruz Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak zer asmo darabil gogoan heldu diren hilabeteotarako Kulturaren arloko murrizketak direla-eta? Izan ere, programatzaileek nolabaiteko segurtasuna eta ziurtasuna behar dituzte beren ekitaldien plangintza egiteko.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa.*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Zergatik eman zaizkie laguntzak abenduaren 10eko uholdeak pairatu zituzten klub jakin batzuei eta beste batzuei, aldiz, ez?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegiari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Orain dela ia urtebete, ingurumen arloko talde batek salaketa bat aurkeztu zuen Guardia Zibileko Sepronan, Martzillako behitegi bat dela-eta. Salaketan honako hau zioen:

“Orain dela gutxi behitegi aurritu bat aurkitu nuen Martzillako udal mugapean (Nafarroa). Instalazioen egoera, nire ustez, negargarria zen; izan ere:

1.- Behiak zaindu gabe zeuden, zikin eta utziak.

2.- Behien egoera –asko ziren–, begiratu batean ez zen osasungarria, argazkietan ikus daitekeenez. Pentsatzen dut egoera horrek okerrera egiten duela euria egiten duenean.,

3.- Kasu honetan, behitegiko mindek eta hondakin organikoek ez zuten betetzen ingurumenkudeaketak agindutakoa, eta, horrenbestez, jariatzeak sortzen dira etengabe hain segur (batik bat euria egiten duenean), eta horiek ingurune soroetan iragazi eta ibaietara nahiz lurrazpiko uretara, iturburuetara eta abar heltzen ahal dira, argazkietan ikus daitekeenez. Jakin badakigu hondakin horiek antibiotikoak, metal astunak, nitratoak nahiz arriskutsuak izan daitezkeen bestelako produktu batzuk dituztela”.

Sepronaren 2021-100912-22 zenbakiko txostena Landa Garapeneko Departamentuari igorri zitzaion.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Landa Garapeneko Departamentuak zer egin du Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegia dela-eta Sepronak igorritako txostena ikusita?

– Zehapen-espeditierik abiarazi al zen? Hala baldin bada, noren aurka abiarazi zen zehapen-espeditientea? Zer gertakari izan liteke arau-haustea eta zer arau hautsiko luke? Espeditientea bukatu eta zehapenik ezarri al da?

– Behitegi horren titularrak ba al zeukan ingurumen baimen integraturik abeltzaintzako instalazio hori paratzeko?

– Martzillako Udalak abeltze horren berri eman al dio inoiz departamentuari? Udalaririk neurri bat hartzeko eskatu al zaio? Eskatu baldin bazaio, zer neurri hartu du eta zer ondorio izan du?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko bulegoburu eta Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren ordainsariei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko bulegoburu eta Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren ordainsariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak otsailaren 28an emandako 42/2020 Foru Aginduaren bidez, Iñaki Crespo San José jauna Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Idazkaritza Bulegoko buru izendatu zen bitarte baterako.

Pertsona hori bera Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria da 2019ko urriaren 3az gero.

Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria den aldetik, arduraldi partzialeko bi sasoi bete

ditu. Lehendakaria denez geroztik, lanaldiaren herena liberatu zuen, bere lanaldia eta Osasunbidean duen lana bateragarri egiteko. Geroago, bulegoburu izendatu zutenetik 2020ko abenduaren 31ra bitarte, lanaldiaren seirenera aldatu zuen bere arduraldi partziala. Azkenik, 2021eko urtarrilaren 21ean egindako biltzarrean, lehendakaria izateagatik zegoen ordainsari berria onetsi zen (Gizarte Segurantzako kotizaziorik gabeko zenbaterako goratu bat).

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Uharteko Udaleko eta Esteribarko Udaleko Gizarte-zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazi al dio Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari Iñaki Crespo San José jaunak arduraldi partziala zeukala mankomunitatean goian adierazitako aldi horietan, Nafarroako Foru Administrazioaren zerbitzuko langilea izateagatik?

2.- Interesdunak nahiz lehendakari den toki entitateak jakinarazi al dute zer lanaldi zeukan eta zer ordainsari jasotzen zuen administrazio horietan, hori baita aplikatu beharreko legedian agintzen dena?

3.- Iñaki Crespo San José jaunak zer lanaldi eta zer arduraldi dauka Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Idazkaritza Bulegoko buru izateagatik?

4.- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak jakin al daki Iñaki Crespo San José jauna bi administrazio publikoren ordainsariak jaso dituela?

5.- Hala baldin bada, Zuzendaritza Nagusiaren ustez, ordainsariak birritan kobratzea ez al da Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren 57. artikuluan ezarritakoaren aurkako?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko estrategiaren gaineko ekintza planari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko strategiaren gaineko ekintza planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zure departamentuak ba al du Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko strategiaren gaineko ekintza planik?

Zer epe darabilzue gogoan?

Zein da egin beharreko ekintzen eskema?

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Erregistro Orokorraren bulegoak berritzeko obretan irisgarritasunera bideratutako kostuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Erregistro Orokorraren bulegoak berritzeko obretan irisgarritasunera bideratutako kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren 2021eko irisgarritasun plan operatiboa 1. neurriko 1. aldaketan aipatzen da Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Erregistro Orokorraren bulegoak berritzeko obrak eginen direla. Departamentuaren estimazioen arabera, zein izan da bulego horiek berritzeko obretan irisgarritasunera bideratu den kostua?

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatuen bilereari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatuen bilereari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da, eratu zenetik, Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatua?

2.- Gobernuaren zer ordezkari eta beste nor hartu du parte bilera horietako bakoitzean?

3.- Zein izan da bilera horietako bakoitzeko gai-zerrenda?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoaren bilerei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoaren bilerei buruz Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da, eratu zenetik, Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoa?

2.- Gobernuaren zer ordezkariak eta beste nori hartu du parte bilera horietako bakoitzean?

3.- Zein izan da bilera horietako bakoitzeko gai-zerrenda?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Tokiko Polizia daukaten toki-entitateek segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharreko informazioari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Tokiko Polizia daukaten toki-entitateek segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharreko informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeak honako hau ezartzen du 23.6 artikuluan:

“Udaltzaingoa duten toki entitateek segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuari ondoko informazioak bidali beharko dizkiote urtero, lehen hiruhilekoan, departamentu horrek ezartzen dituen irizpide bateratuen arabera presatuak:

a) Aurreko urtean emandako zerbitzuen oroitidazkia.

b) Delitu, hutsegite eta denetariko gorabeheren erregistro-datuak.

c) Giza baliabide eta baliabide materialen dotazioak”.

23.2 artikulua, berriz, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 1.h) apartatuari dagokionez ezartzen du Nafarroako Tokiko Poliziek Nafarroako Foruzaingoari jakinarazi beharko dizkiotela egiten dituzten jarduketak.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Azken 10 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri diote segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari aurreko urtean emandako zerbitzuen oroitidazkia?

2.- Azken 10 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri dizkiote segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari delituen, hutsegiteen eta denetariko gorabeheren erregistro-datuak?

3.- Azken 10 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri dizkiote segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari giza baliabide eta baliabide materialen dotazioak?

4.- Azken 3 urteotan, tokiko polizia duten zenbat toki entitatek igorri diote Foruzaingoari komunikazio bat, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 23.1.h) artikuluan ezarritakoaren arabera egindako jarduketak direla-eta?

5.- Zehazki zer toki entitatek ez dituzte bete –eta zenbateraino– azken 10 urteotan Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen 23.6 artikuluan eta Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru legearen 1.h) apartatuari dagokionez 23.2 artikuluan ezarritako betekizunak?

6.- Segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuak zer neurri hartu du betekizunak bete ez dituzten toki entitateek informazioa igor diezaieten departamentuari berari nahiz Foruzaingoari?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroan sorgin-ehizaren xede izan ziren emakume nafarren memoria eta errekonozimenduari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan sorgin-ehizaren xede izan ziren emakume nafarren memoria eta errekonozimenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen 2019ko martxoaren 28an egindako Osoko Bilkuran; haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zuen Memoriaren Institutuak sorgin-ehizaren biktimen memoria ere jaso dezan, eta honako hau zioen:

“1.- Nafarroako Gobernuak premiatzen da sorgin-ehizaren biktimen inguruko azterketak eta ikerketak egitea aintzat har dezan –Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Memoriaren Institutuaren barruan eta genero ikuspegian espezifikoki zentratutako lan-eta egintza-ildo baten barruan–, epe historiko berriagoetan ere emakumeek jasan duten errepresioaren aurrekari gisa.

2.- Nafarroako Gobernua premiatzen da sorgin-ehizarekin lotutako memoria-lekuen mapa bat egin dezan, leku horiei emanez beste memoria-leku batzuen babes-araubidearen antzeko bat.

3.- Nafarroako Gobernua premiatzen da erakunde publikoek errekonozimendu-omenaldi bat egin dezaten sorgin-ehizaren testuinguruan eraildako pertsonen gomutan –gehienak, emakumeak–, feminizidio instituzional ikaragarri horren salaketa publikoa eginez hartara.

4.- Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuak material didaktikoak eta ikus-entzunezkoen materialak prestatzea susta dezan, sorgin-ehizaren biktima izan ziren emakume errepresaliatuen ikuspegia eskaintzeko.

Kataluniako Parlamentuak, berriz, gai horri berari buruzko erabaki bat onetsi zuen orain dela gutxi Osoko Bilkuran. Honako hau, hain zuzen ere:

“1. Parlamentuak aitortzen du sorginkeria dela-eta salatu eta kondenatutako emakumeak mundu osoan milaka emakume erailtzea ekarri zuen jazarpen misoginoaren biktima izan zirela.

2. Parlamentuak babesa ematen dio “Ez ziren sorginak, emakumeak ziren” kanpainari, bai eta haien memoriaren erreparazioari ere. Kataluniako Parlamentuak Gobernua premiatzen du:

a. Historian zehar sorginkeria dela-eta bidegabeki kondenatu, exekutatu eta erreprimitutako emakume guztien memoria historikoa erreparatu dezan –hartara, irain-ordainezko ekintzak sustatu dituzte– eta herritarrak sentsibiliza ditzan berdintasunaren eta giza eskubideen balioak direla-eta.

b. Sorgin-ehizari eta haren zioei buruzko azterlan akademiko genero-ikuspegidunak susta ditzan, eta curriculum akademikoan sar ditzan.

c. Zabalkundeko ekintzak sustatzea bultzatu dezan, urteak joan urteak etorri Katalunian gertatutako sorgin-ehiza ezagutarazteko eta gertakari

historiko hori eta horren zioak direla-eta sentsibilizatzeko (desberdin denaren kriminalizazioa, misoginia).

d. Kataluniako udalei eska diezaien beren izendegiak berrikus ditzatela, sorginkeria dela-eta beren herrietan kondenatutako emakumeen izenak jasotzeko bertan, erreparazio historikoko eta kaleen izenak feminizatzeko ariketa gisa.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Nafarroako Parlamentuak ebatzitako betetze aldera, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak zer egin du genero ikuspegian espezifikoki zentratutako lan-eta egintza-ildo bat zertzeko, sorgin-ehizaren biktimen inguruko azterketak eta ikerketak egin daitezkeen epe historiko berriagoetan ere emakumeek jasan duten errepresioaren aurrekari gisa?

2.- Nafarroako Gobernuak zer egin du 2019ko martxotik hona sorgin-ehizarekin lotutako memoria-lekuen mapa bat egiteko eta leku horiei beste memoria-leku batzuen babes-araubidearen antzeko bat emateko? Zer herritan lokalizatu dira sorgin-ehizarekin lotutako memoria-leku horiek?

3.- Nafarroako Gobernuak egin al du –zuzenean nahiz ukitutako toki entitateekin lankidetzan– errekonozimendu-omenaldirik sorgin-ehizaren testuinguruan eraildako pertsonen gomutan –gehienak, emakumeak–, feminizidio instituzional ikaragarri horren salaketa publikoa eginez hartara? Egin ez badu, Gobernuak ba al du emakume horiei errekonozimendu-omenaldirik egiteko asmorik?

4.- Hezkuntza Departamentuak zer egin du sorgin-ehizaren biktima izan ziren emakume errepresaliatuen ikuspegidun material didaktikoak eta ikus-entzunezkoen materialak prestatzeko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Kideak programari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kideak programari buruz Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio

Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zenbat pertsona daude gaur egun Kideak programaren barruan? Xehakatu modalitate bakoitzaren arabera, egoitza-baliabidearekin ala gabe den.

2.- Zenbat pertsona daude Kideak programan sartzeko zain? Xehakatu modalitateen arabera.

3.- Programa horretan ba al dago itxarote-zerrendarik? Baldin badago, xehakatu, modalitatez modalitate, zenbat pertsona dauden itxarote-zerrendan.

4.- Itxarote-zerrendarik baldin badago, noiztik dago itxita programa gehieneko kopurura iristea-gatik? Xehakatu modalitateen arabera.

5.- Gobernuak ba al du programa horretako plaza-kopurua handitzeko asmorik 2022an edo hurrengo urteetan? Hala baldin bada, zehaztu zenbat plaza gehiago izanen diren, eta zer modalitatetakoak.

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzea.

HAUTAGAIA ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Arartekoa izateko hautagai bat aurkeztuz Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko idazkia eta horrekin batera doazen dokumentuak (10-22/ELC-00001).

Eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 3. artikulua xedatutakoarekin eta Arartekoa hautatzeko arauekin (2022ko urtarrilaren 24ko Mahaiko

erabakiaren bidez onetsiak) bat etorritik, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa izateko honako hautagaitza hau izapidetzeko onartzea eta Foru Araubideko Batzordera igortzea:

- Francisco Javier Vera Donazar jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak proposatuta.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Soldata-arrakalak areagoturiko gizarte-desparekotasun gero eta handiagoaren analisiari, egoerari eta hari aurre egiteko neurriei buruzko Osoko Bilkura monografiko bereziaren eztabaida antolatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Soldata-arrakalak areagoturiko gizarte-desparekotasun gero eta handiagoaren analisiari, egoerari eta hari aurre egiteko neurriei buruzko Osoko Bilkura monografiko bereziaren eztabaida antolatzeko honako arau hauek onestea:

“1. Eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia duten erabaki-proposamenak aurkezteko epea eztabaida egiten den Osoko Bilkuraren aurreko eguneko 10:00etan bukatuko da. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere 3 proposamen aurkeztu ahalko ditu.

Erabaki-proposamenak aurkezteko epea bukatuta, egun horretan bertan Mahaiak proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen edo foru parlamentarien elkartearen eledunei helaraziko dizkie, azter ditzaten.

2. Eztabaida ekimenaren proposatzaile Geroa Bai talde parlamentarioaren eledunaren mintzaldiarekin hasiko da eta hogeita minutu iraunen du gehienez ere. Mintzaldi horretan eledunak bere jarrera azaldu beharko du, bai eta bere proposamenak defendatu eta gainontzeko talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarrekin aurkezturiko erabaki-proposamenei buruz duen iritzia azaldu ere. Ondoren gainerako talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldi horretan eledunek haien

jarrera azaldu beharko dute, bai eta haien proposamenak defendatu eta gainontzeko talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarrekin aurkezturiko erabaki-proposamenei buruz duten iritzia azaldu ere. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, iraupen berarekin.

Eztabaida bitartean, lehendakariak izapidera onartzen ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarrekin aurka azaltzen ez bada onartzen ahalko dira zuzenketa horiek.

4. Proposamenen eztabaida amaiturik, **2.** arauan ezarritako hurrenkerari jarraituz bozkatuko dira. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira”.

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen (10-22/CDP-00001).

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Datalia Protección de Datos SL enpresa izendatzea Nafarroako Kontuen Ganberako datu-babeserako ordezkariaren eginkizunak betetzeko.

2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DPBEE). Araudi hori osatzeko, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa onetsi zen.

DPBEEko 37. artikulua xedatzen du ezen tratamendu-arduradunak behartuta daudela datu-babeserako ordezkari (DBO) bat hautatzera, tratamendua egiten duena agintari edo erakunde publiko bat denean. Agintari publikoei Europako Erregelamendua aplikatu behar zaien aldetik, datu-babeserako ordezkari bat izendatu beharra dago, erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz.

Ordezkararen posizioa eta eginkizunak DPBEEan bertan arautzen dira, xedatuz ordezkaria izanen dela zeregin gisa duena entitate arduradunari jakinaraztea zein diren datu-babesaren arloan dituen legezko betebeharrak, bai eta horri buruzko araudia betetzen dela zaindu edo gainbegiratzea, kontrol-agintaritzarekin lankidetzan aritzea eta agintaritzea horren eta entitate arduradunaren arteko kontakturako gune gisa jardutea ere.

Ordezkararen profilaz denaz bezainbatean, Europako Erregelamenduak zehazten du hura

hautatuko dela dituen dohain profesionalak aintzat harturik; bereziki, dituen zuzenbide-ezagutza espezializatuak eta datu-babesaren alorrean duen eskarmentua.

Idazkari nagusiak proposatu du –ikusita erakundeko langileen artean ez dagoela egun datu-babeserako ordezkariaren eginkizunak betetzeko izan beharreko profila duenik– Datalia Protección de Datos SL enpresa izendatzea eginkizun hori betetzeko, halako moduan non hura izanen baita bi urtez Nafarroako Kontuen Ganberako datu-babeserako ordezkariaren eginkizunak beteko dituen.

Hori guztia kontuan hartuta, lehendakari naitzen aldetik, indarreko araudia betez eta dagozkidan ahalmenak eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DUT:

Bat.- Datalia Protección de Datos SL enpresa izendatzea Nafarroako Kontuen Ganberako datu-babeserako ordezkariaren eginkizunak betetzeko.

Bi.- Ebazpen hau Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari jakinaraztea, bai eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen web-orrian argitara dadin agintzea ere.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

